



OSOKO BILKURA
2018/01/25
1 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-
BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ,
honako hau**

**D. IÑAKI GALDOS LANDA EL
SECRETARIO ACCTAL. DEL
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE
ELGOIBAR.**-----

ZIURTATZEN DUT:

Bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bostean, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bostean, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ezohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate-lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Maialen Gurrutxaga Uranga andrea, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo Andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Iñaki Larrañaga Etxabe jauna, Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea, Joseba Osoro Iturbe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Fernando Suarez Varela jauna.

Ezin etorria adierazi du; EH BILDU Udal-taldearen izenean; Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna.

Ez dira bertaratu: Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Nerea Alustiza Alonso andrea.

CERTIFICO:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día veinticinco enero de dos mil dieciocho, es del tenor literal siguiente:

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veinticinco de enero de dos mil dieciocho, reúnen en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión extraordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Doña Maialen Gurrutxaga Uranga, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Bittori Zabala Fernandez, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Iñaki Larrañaga Etxabe, Doña Mireia Isasmendi Aizpiri, Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui Don Joseba Osoro Iturbe y Don Jon Peli Uriguen Ansola. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Don Fernando Suárez Varela.

Disculpa asistencia: Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar; Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar.

No asiste. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso.



OSOKO BILKURA
2018/01/25
1 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.

**LEHENENGOA.- 2017KO
ABENDUAREN 21EAN EGINDAKO
BILERARI DAGOKION AKTA
ONARTZEA.-**

**PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA
CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN
CELEBRADA EL DÍA 21 DE
DICIEMBRE DE 2017.-**

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeita hamarrean egin zen bilerari dagokion akta.

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día veintiuno de diciembre de dos mil diecisiete, la misma es aprobada por unanimidad.

**BIGARRENA.- 2018KO
ORDENANTZA FISKALEN
ALDAKETAREN HASIERAKO
ONARPENA;**

**SEGUNDO.- APROBACIÓN INICIAL
DE LA MODIFICACIÓN DE LAS
ORDENANZAS FISCALES 2018;**

**-ZERBITZU PUBLIKOAK
ESKAINZEAGATIKO ETA
ADMINISTRAZIO JARDUERAK
EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN
DITUEN ORDENANTZA.**

**-ORDENANZA REGULADORA DE
TASAS POR PRESTACIÓN DE
SERVICIOS PÚBLICOS Y
REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES
ADMINISTRATIVAS.**

**-UDAL JABARI PUBLIKOAREN
ERABILERA PRIBATIBO EDO
APROBETXAMENDU
BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN
DITUEN ORDENANTZA.**

**-ORDENANZA REGULADORA DE
TASAS POR UTILIZACIÓN
PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO
ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO
LOCAL.**

Idazkari jaunak Udal Kudeaketarako Batzordearen honako irizpen hau irakurri du:

Por parte del Sr. Secretario, se procede a dar lectura al siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

“Batzorde honek Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo **AKORDIOAK** har ditzala:

“Vista Ésta Comisión propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:

LEHENENGOA.- Zerbitzu publikoak eskaintzeagatiko eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa lehendabizikoz onartzea, ondoren adieraziko denaren arabera

PRIMERO.- La aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, en los términos que se reflejan.



OSOKO BILKURA
2018/01/25
1 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Aipaturiko proposamena ondorengo da:

Las citada propuesta es como sigue:

1.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIKO ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ALDATZEA

1.- MODIFICACION DE LA ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACION DE SERVICIOS PUBLICOS Y REALIZACION DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS

G epigrafea: Zabor bilketa eta ezabaketa

Epígrafe G: Recogida y eliminación de basuras

1 eta 2 puntuak bateratu modu honetan:

Unificar el punto 1 y 2 de la siguiente manera:

1.- Etxebizitzak.....193,87€

1.- Viviendas.....193,87€

2.- UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

2.- ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PUBLICO LOCAL

F Epigrafea: Jabari publikoa hainbat instalaziorekin okupatzea

Epigrafe F: Ocupación del dominio público con instalaciones diversas.

3 tarifa: Akatsen zuzenketa, 13,98€ esaten duen tokian 139,80€ jarri.

Tarifa 3: Corregir error y en donde dice 13,98€ debe decir 139,80€.

4 tarifa kendu eta C epigrafean jaso

Tarifa 4 eliminarla y recogerla en el Epígrafe C.

BIGARRENA.- Akordio hau guztiau 30 lanegunez, Udaleko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendaurrean jartzea, egon daitezkeen erreklamazioak edo oharrak aurkezteko.

SEGUNDO.- Someter el presente acuerdo información pública, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por el plazo de 30 días hábiles a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran deducirse.

HIRUGARRENA.- Era berean, aipaturiko epea igarotakoan, erreklamaziorik edo oharrak aurkezten ez baldin bada, aldaketa horiek behin betiko bihurtuko dira.”

TERCERO.- Considerar que, si transcurrido dicho plazo no hubiera reclamación ni observación alguna, dichas modificaciones devendrán como definitivas.”



EH Bildu Elgoibar Elgoibar Udal Taldeko zinegotzia den Larrañaga jaunak dio, proposamenaren alde botatzera doazela bi arrazoi hauengatik:

Lehenengo arrazoia: behingoz derrigortasunean oinarritutako sistema bat ezartzera goaz. Urte asko daramazkigu esaten hondakinen kudeaketa egokia ezin dela egon bakoitzaren erabakiaren baitan (Lortutako emaitzak borondatezko 5. edukiontziaekin juxtu juxtu heldu dira %50ra. Udala konprometitu zen %60tik urruti). Alde horretatik beraz, berandu, baina norabide egokian hartutako erabakia dela uste dugu.

Bigarren arrazoia: tasa erabakitzerakoan beti defendatu dugu ere erabilpen egokia saritu egin behar dela edota erabilpen desegokia zigortu. Onartzera goazen ordenantzak tasa bakarria aurreikusten du baina Mankomunitateak arautu du bere ordenantzan zeintzuk diren erabilpen egokiaren irizpideak eta betetzen ez dutenei zigorrak jartzea aurreikusten da.

Baina adierazi behar dugu argi eta garbi gure baiezkoa oso kritikoa dela alde negatibo asko ikusten dizkiogulako sistema berria aplikatzeko proposamenari:

Alde batetik, lurpeko edukiontzi berdeak mantenduko dira (denak ez badira batzuk bai) errefuxa botatzeko inongo kontrolik gabe. Erabaki hau sistemaren filosofiaren kontra doa zuzen zuzenean. Badirudi asmoa dela ontzi hauei ere txipa ipintzea baina sistema berria baldintza hauetan abian jartzea arduragabekeria iruditzen zaigu. Sistema honekin erabilpen egokia kontrolatzea bere zailtasunak baditu horrelako baldintzetan askoz zailagoa.

“El concejal del Grupo Municipal EH Bildu Sr. Larrañaga comenta que van a votar a favor de la propuesta por estas dos razones:

La primera razón: por una vez, vamos a implantar un sistema basado en la obligatoriedad. Llevamos muchos años diciendo que una gestión adecuada de los residuos no puede basarse en decisiones individuales (Los resultados obtenidos con el 5º contenedor, que es voluntario, apenas han llegado al 50 %. Lejos del 60 % con el que se comprometió el Ayuntamiento). En ese sentido, por tanto, aunque sea tarde creemos de es una decisión que se ha tomado en la dirección correcta.

La segunda: al acordar la tasa, siempre hemos defendido que el uso adecuado también debe ser premiado, o que se deben castigar los usos inapropiados. La ordenanza que vamos a aprobar prevé una única tasa, pero la Mancomunidad ha regulado en su ordenanza los criterios de un uso adecuado, y se prevé la imposición de sanciones a quienes no los cumplan.

Pero, debemos expresar con total claridad que nuestro sí es muy crítico, porque vemos muchos aspectos negativos a la propuesta de aplicación del nuevo sistema.

Por un lado, se mantendrán los contenedores verdes soterrados (aunque no sean todos, algunos sí), sin que exista ningún control para depositar la fracción rechazo. Parece que existe la intención de colocar un chip también a estos contenedores, pero nos parece una irresponsabilidad el hecho de poner en marcha un sistema en estas condiciones. Si con este sistema es difícil controlar un uso apropiado, en estas condiciones es aún más difícil. En



OSOKO BILKURA
2018/01/25
1 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Edukiontziak direla eta aipatu ere organikorako daudenak ez direla batere egokiak erabiltzeko duten zailtasunagatik, batez ere adinekoentzat.

Bestalde, ez dugu uste erabilpen egokia eta desegokia bereizteko erabaki duten sistema eraginkorra eta pedagogikoa denik. Proposatzen duenaren arabera tasak kobratzea, orain arte bezala, udalari dagokio baina isunak jartzea mankomunitateari. Banaketa honek nahaste handia sortuko du hiritarren artean eta bi erakundeen artean ahalmen ezberdinak banatzerakoan arazoak eta deskoordinazioa besterik ez da lortuko.

Horretaz gain, esan dugu hondakinen kudeaketa egokia derrigortasunean egon behar duela oinarrituta baina hala eta guztiz ez du ondo funtzionatuko hiritarrek ez badute informazio nahikorik eta ez baldin badaude motibatuta gauzak ondo egiteko. Horregatik sistema berriaren ezarpenerako orain arte egin den kanpaina oso pobrea iruditzen zaigu. Ezinbesteko da udala, mankomunitateaz gain, inplikatzeko eta informazio eta motibazio kanpaina askoz eraginkorragoa martxan jartzea.

Azkenik Hondakinen kudeaketan bilketa berezitua tresna garrantzitsua da baina ez bakarria. Hondakinen mahaian lortu genuen akordio markoan beste hainbat neurri ere onartu genituen eta ezer gutxi egin neurri horiek garatzeko:

Hondakinak murrizteko edota berrerabilpena bultzatzeko.
Auzo konposta sustatzeko.
Herriko eragileekin elkarlanean sentsibilizazio kanpainak bideratzeko

cuanto a los contenedores para recoger los residuos orgánicos, decir, que los actuales no son nada adecuados, por su dificultad de uso, sobre todo para las personas mayores.

Por otro lado, no consideramos que el sistema que han establecido para discriminar el uso apropiado del inapropiado sea el más efectivo. Según lo propuesto, el cobro de las tasas, como hasta ahora, corresponde al Ayuntamiento, pero la imposición de sanciones a la Mancomunidad. Esta separación creará un gran enredo a la ciudadanía, y al distribuirse las diferentes competencias entre las dos instituciones, no habrá más que problemas y descoordinación.

Además, hemos comentado que la gestión adecuada de los residuos debe basarse en la obligatoriedad, pero aun así, el sistema no va a funcionar bien, si la ciudadanía no dispone de suficiente información, y no está motivada para hacer bien las cosas. Por ello, la campaña que se ha llevado a cabo hasta ahora para el establecimiento del nuevo sistema se nos hace muy pobre. Es indispensable que el Ayuntamiento, además de la Mancomunidad, se implique, y que ponga en marcha una campaña de motivación mucho más eficaz.

Por último, la recogida selectiva de los residuos es una herramienta importante, pero no la única. En el acuerdo marco que logramos en la mesa de residuos, también aprobamos una serie de medidas, e hicimos bien poco para su desarrollo:

Para la reducción de los residuos o el impulso de la reutilización.

Para el desarrollo de campañas de sensibilización en colaboración con la ciudadanía.



Oraindik garaiz gaude hainbat neurri hartzeko aipatutako gabeziak edo hutsuneak konpontzeko. Horretarako aprobetxatzen degu eskatzeko Hondakinen mahairen bilera bat sistema berriaren ezarpena behar bezala planifikatzeko eta emaitzen jarraipen zuzena egiteko sortu daitezkeen arazoei erantzun azkarrak eman ahal izateko.

EAJ Udal Taldeko Bozeramailea den Zabala andreak dio, Ordenantza fiskaletan, zerbitzu publikoak eskaintzeagatiko ordenantzaren "g" epigrafean, "Zabor bilketa eta ezabaketa", guztira 12 apartatu daude. Gaur eta hemen proposatzen ari garen aldaketak bakarrik lehenengo apartatuari eragingo dio, etxebizitzentzari, hain zuzen ere.

Arrazioa zera da: aurki edukiontzi berri bat jarriko da martxan Elgoibarren, grisa, errefusarena. Eta kudeaketan aldaketak ekarriko dituen, horrek ordenantza fiskala egokitzera behartu gaitu.

Zergatik? Orain dela urte batzuk, edukiontzi marroia, organikoa, ipini zenean ordenantza fiskaletan bereizpen bat egin zen organikoan alta emanda zeuden eta alta emanda ez zeuden etxebizitzentzari artean. Hartara, konpromisoa edo erantzukidetasun soziala saritu ziren. Merkeagoa zen organikoan alta emanda zeudenen tasa. Edo beste modu batera esanda, organikoari bizkarra eman ziotenak "zigortu" ziren tasa altuago batekin. Urteak pasa ahala diferentzia hori haunditzen joan zen, tasa merkeena izoztuta gelditu zelako, eta tasa garestiena hazten joan zelako. Sistema zaharra boluntarioa zen, nahi zuenak erabiltzen zuen organikoa.

Aún estamos a tiempo de adoptar diferentes medidas, para subsanar las carencias o defectos mencionados. Para ello, aprovechamos para solicitar una reunión de la Mesa de Residuos, con el fin de planificar la aplicación del nuevo sistema y realizar el seguimiento directo de los resultados, para poder dar respuestas rápidas.

La portavoz del Grupo Municipal EAJ-PNV, Sra. Zabala, dice que en las ordenanzas fiscales, en el epígrafe "g" "Recogida y eliminación de residuos correspondiente a la ordenanza para la prestación de servicios públicos, existen 12 apartados. La modificación que proponemos aquí y ahora únicamente afectará al primer apartado, es decir, a la tasa de viviendas.

La razón es la siguiente: en breve, se pondrá en marcha un nuevo contenedor en Elgoibar, el gris, el de la fracción rechazo, y como eso traerá cambios en la gestión, nos hemos visto obligados a adaptar la ordenanza fiscal.

¿Por qué? Hace unos años, cuando se instauró el contenedor marrón, el orgánico, se hizo una distinción en las ordenanzas fiscales entre las viviendas que estaban dadas de alta y las que no lo estaban. Por tanto, se premió el compromiso o la responsabilidad social. Era más barata la tasa de quienes estaban dados de alta en el orgánico. O dicho de otra manera, se "castigó" a quienes dieron la espalda al orgánico con una tasa mayor. Con el transcurso de los años, se fue incrementando esa diferencia, porque la tasa más barata se quedó congelada. El sistema antiguo era voluntario, el orgánico era utilizado por quien así lo quería.



OSOKO BILKURA
2018/01/25
1 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Orain datorkigun zabor bilketa metodo berrian ez da aukerarik egongo, etxebizitza guztiek erabili beharko dituzte edukiontzi marroia eta gris. Hori dela eta, bi tasa bereiztu mantentzeak ez duenez zentzurik, hemendik aurrera etxebizitza guztientzat tasa bakar bat egongo da: 193,87 eurokoa. Pasa den urrian, 2018rako ordenantza fiskalak onartu genituenean, 220,66 (garestiena) eta 183,88 (merkeena) euroko tasak onartu ziren. Tasa bateratu berriak 10 euroko hazkundera suposatzen du merkeenarentzat eta 27 euroko beherapena garestienarentzat.

Con el nuevo método de recogida de basuras que nos viene, no habrá opción para ello, todas las viviendas deberán utilizar el contenedor marrón y el gris. Por ello, como no tiene sentido el mantenimiento de dos tasas diferenciadas, en adelante, existirá una única tasa de 193,87 euros. El pasado mes de octubre, cuando aprobamos las ordenanzas fiscales para 2018, aprobamos una tasa de 220,66 euros (la más cara) y otra de 183,88 euros (la más barata). La nueva tasa unificada supone un incremento de 10 euros para la tasa más barata, y una rebaja de 27 euros para la más cara.

Nondik sortu da 193,87 euroko tasa berria? Sistema zaharraren bi tasen zergabilketa osotasunean, eta sistema berriaren zergabilketa berdinak izatea. Inpaktua neutrala izatea.

¿De dónde ha surgido la nueva tasa de 193,87 euros? Se ha pretendido que la recaudación total de las dos tasas del sistema antiguo sea igual a la recaudación del sistema nuevo. Es decir, que el impacto sea neutral.

Behin prezioarena azalduta, beste argibide batzuk: epeak eta erabilera.

Una vez explicado el precio, demos otras explicaciones: los plazos y el uso.

Epeei buruz, egutegi fiskalari buruz: Elgoibarren, normalean, zaborraren tasa urtean bi errezibotan ordaintzen da, sei hilero. Aurten salbuespena egingo da lehenengo sei hilekoan, bi hiruhileko errezibo jasoko ditugulako: lehenengoa ordenantza zaharraren arabera, eta bigarren hiruhilekoa ordenantza berriaren arabera.

En cuanto a los plazos y el calendario fiscal: En Elgoibar, normalmente, la tasa de basuras se paga cada seis meses, mediante dos recibos. Este año se hará una excepción, porque en el primer semestre recibiremos dos recibos trimestrales: el primero, de acuerdo con la antigua ordenanza, y el segundo trimestre de acuerdo con la nueva.

Eta erabilerari buruz, edukiontzi berria txipdun txartel bidez irekiko da. Funtzionamendua organikoaren berdina izango da, baita txartela ere.

Y en cuanto al uso, el nuevo contenedor se abrirá mediante una tarjeta con chip. El funcionamiento será el mismo que el del contenedor orgánico, y la tarjeta también.

Eta orain hitz batzuk birziklapenari buruz. Debabarrenako Mankomunitateak hilero ematen ditu birziklapen tasak. Azkena 2017ko azarokoa da. Elgoibarren, kontzeptu edo zabor bilketa mota guztiak kontutan

Y ahora, unas palabras en torno al reciclaje. La Mancomunidad de Debabarrena ofrece mensualmente los datos de reciclaje. Los últimos son de noviembre de 2017. En Elgoibar, teniendo en cuenta todos los conceptos



OSOKO BILKURA
2018/01/25
1 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

hartuz, %49,61 birziklatu da. Portzentaje hori puntu bat baxuagoa da Debabarrena osotasunean hartzen badugu, hau da, 8 udalerrien batez bestekoa. 2016an %44 eta 2015ean %43. Beraz, aurten tasa altuagoa izan da.

Baina ez gaude harro, ez gaude konforme. Birziklapen ratio honi bultzada haundi bat eman behar diogu. Horretarako nahitaezkoa da gizartearen sentsibilizazioa eta inplikazioa. Ondorioz, sistema aldaketa datorrela aprobetxatuz, kontzientziario eta informazio kanpaina bat bultzatuko dugu EH Bilduk esandakoarekin ados. Ez etxebizitzetara zuzendua bakarrik, baizik eta sektore guztietara: merkataritza, ostalaritza, sozietate gastronomikoak, industriak, hezkuntza zentruak eta abar.

Bozketa egin ondoren, proposamena onartu eta akordio bilakatu da.

HIRUGARRENA.- ESKARI- GALDERAK.-

Ez da ez eskaririk, ez galderarik egon.

Eta iluntzeko seiak eta berrogei minutu direnean, Lehendakari andreak bilkura bukatutzat eman du, eta nik, Idazkari naizenez, hau guztia egiaztatu dut.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Alkate andreak oniritziarekin, Elgoibarren bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita seian.-

O.E.-Vº.Bº.
ALKATEA, - LA ALCALDESA

o modalidades de la recogida de basuras se ha reciclado un 49,61 %. Ese porcentaje es un punto más bajo si tenemos en cuenta a Debabarrena en su conjunto, esto es, el promedio de los 8 municipios ha sido del 44% en 2016, y del 43% en 2015.

Pero no estamos orgullosos, no estamos conformes. Tenemos que dar un gran impulso a este ratio de reciclaje. Para ello, es indispensable la sensibilización e implicación de la ciudadanía. En consecuencia, aprovechando que se va a dar un cambio de sistema, impulsaremos una campaña de concienciación e información, de acuerdo con lo que ha dicho EH Bildu. Y no va estar dirigida sólo a las viviendas, sino a todos los sectores: comercio, hostelería, sociedades gastronómicas, industrias, centros educativos, etc.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad, elevándola a la categoría de acuerdo.

TERCERO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

No se presentan.

Y siendo las dieciocho horas y cincuenta minutos, la Sra. Alcaldesa-Presidenta levanta la sesión, extendiéndose la presente acta que yo en calidad de Secretario certifico.

Y para que así conste, expido la presente certificación con el Vº.Bº. de la Sra. Alcaldesa, en Elgoibar a veintiséis de enero de dos mil dieciocho.-----